# [Eusk/CAast]Ekainak 2: Puta baten istorioa

OIHANA ETXEBARRIETA :: 02/06/2015

Aurre egin baino, biktimizazioan, estigmatizazioan eta zigorrean izan du oinarria. Bestea, antolakuntzaren eta saretzearen bidea izan da.

Demagun orain kontatzera noan hau nire istorioa dela. Demagun txikia nintzelarik ikerketa eta deskubrimendu garai paregabea izan nuela, kalean lurrean topatzen nuen guztia ukitzen nuela, poltsikoetan gordetzen nuela eta gero, etxean, lanak izaten zituztela txikleak, klipak, barraskiloak eta harriak poltsikoetatik kendu ahal izateko. Demagun auzoan, alde batetik bestera ibiltzen nintzela eta auzotarren etxeetara hurbiltzen nintzela merienda goxoenaren bila. Demagun etxekoek hori guztia onartzen zutela, “grazia” egiten ziela eta lasai asko egunero-egunero hau egiten jarrai nezakeela. Baina demagun, deskubrimendu eta auto-plazer bilaketa honetan nire klitoria eta bagina ukitzen hasi nintzela, eta asko gustatu zitzaidala. Plazer iturri handia eta nirea zela konturatu nintzela, eta honela masturbazioa topatu nuela, kuxin batekin, sofaren besoekin, ohean, eskuarekin … Demagun dena primeran joan zela heldu batek “Atera eskua hortik, zikina da!” esan zidan arte. Demagun, egun horretan ikasi nuela nire alua zerbait zikina zela (lurreko txikleak baina gehiago!) eta masturbatzeari utzi niola.

Demagun, urte batzuk beranduago, institutuan nengoela, mutilekin ligatzen hasi nintzela.

Lagun guztiek harremanak zituzten, eta ni atzean geratzen ari nintzela, beraz nire lehen muxuak bilatzeko irrikitan nengoela. Baina ezin nuela gehiegi ikusarazi ligatu nahi nuenik, ez nuela lehen muxu horiez gain askoz gehiago eskatzerik, ezin nuela gaur batekin eta bihar bestearekin probatzen ibili, … Sexualki aktiboa bai (bestela moja bat nintzateke) baina ez gehiegi izan behar nuela, ezin nuela puta bat izan. Hortxe zegoen nire marra. Demagun beldurra nuela marra hori zeharkatzeko, emakume onaren eta txarraren arteko marra zeharkatzeko. Marra hori sexualitatean, gorputzaren ezagutzan eta plazerraren kudeaketan markatua zegoen. Beraz, demagun, sexu-heziketa egitera etorri ziren gazteek masturbatu eta klitoria ikusi, ukitu eta maitatu behar genuela esan zigutenean klaseko guztiek barre egin genuela.

Demagun, zenbait urte beranduago, unibertsitatean, mugimendu feministan ibiltzen hasi nintzela eta gure herrian erakusketa bat antolatu genuela herriko historiako emakumeak itzaletik argira ateratzeko. Demagun, fabrika bateko emakumeen argazkiak bildu genituela, eta ikasi genuela, emakume horiek, frankismo garaian lantegietan ibili zirela, askotan seme-alabak bakarrik hezten zituztela, eta gainera sindikatu eta haien eskubideen alde borroka egin zutela. Demagun, argazki hauek erakusten ari ginela emakume nagusi bat hurbildu zitzaidala, eta esan zidala emakume langile horiek putak zirela esaten zela herrian. Esan dezagun, egun horretan konturatu nintzela, puta estigma, sexualitatetik harago, sistema oso baten mantenurako estigma bezala erabiltzen zela, familia heterosexualaren barruan, lan banaketa eta rol banaketa konkretuak egiteko balio zuela ere, emakumeak etxean mantentzeko, ekonomikoki aktiboak ez izateko, botere harremanen baitan menpeko izateko.

Demagun, hau guztia niri gertatu zitzaidala, edo zuri. Sistema heteronormatibo baten barruan, seguru zuri ere gertatu ahal izan zaizula. Emakume guztiak “bestearen”, txarraren beldurrarekin hezi gaituzte, izan behar ez dugun horren baitan. Gure heziketa guztia puta bezala izendatuak izan ez gaitezen bideratu dute. Honek gainera kolektibo konkretu baten estigmatizazioa ekarri du. Bizi txarreko emakumeak, kontrolatuak eta lanbide okerrekoak ... Zenbat aldiz entzun ditugu hitz hauek sexu langileez hitz egin dugunean? Biktimizazio honi aurre egiteko bide ezberdinak hartu dira. Bata, zenbait instituziok hartu dutena, politika asistentzial eta geroz eta punitiboagoak sortu dituena.

Aurre egin baino, biktimizazioan, estigmatizazioan eta zigorrean izan du oinarria. Bestea, antolakuntzaren eta saretzearen bidea izan da.

Azken urteetan sexu langileen eta haiekin lan egiten duten zenbait elkarteren arteko aliantzak medio, sexu langileen sindikatuak, elkarte feministak, ... sortu dira, haiengatik hitz egiteari utzi eta haiek ahots propioarekin hitz egiteko. Euskal Herrian, “Gu Gaitun” elkartearen sorrerak, sexu langileekin lan egiten duten talde ezberdinen koordinazioa bultzatu du eta bide luzea opa diogu! Mugimendu guzti hauek egin dezaketen lana handia da, alde batetik sexu langileek duten egoera eta eskakizunak elkartu eta borrokatzeko, baina baita, gure buruetan oraindik dagoen marra hori deuseztatzeko.

Baina ezin dugu mugimendu hauen gain utzi ardura guztia. Gurea ere bada. Prostituzioaz, putez, estigmez... hitz egin behar dugu.
Ikusarazi, salatu eta eraldatu behar ditugu. Edo gure egin. Queer mugimenduak egin zuen bezala, hitzak bereganatuko ditugu, eta puta izateak sexualki askea, independentea, norbere buru eta gorputzen jabea, langilea, sistemaren kontrakoa... izatea esan nahi badu, ni ere puta bat naiz.

Demagun, hasierako historia imajinatu besterik egingo ez dugun eguna iritsiko dela.

*Oihana Etxebarrieta Euskal Herriko Bilgune Feministaren kidea da*

---

**RELATO DE UNA PUTA**

Supongamos que lo que voy a contar ahora es mi historia. Supongamos que cuando era pequeña tuve una época excepcional de investigación y descubrimientos, y que solía tocar todo lo que encontraba en el suelo; que me lo solía guardar en los bolsillos, y que después, su trabajo les costaba a los de casa quitar los chicles, los clips, los caracoles y las piedras de los bolsillos. Supongamos que solía andar de un lado a otro del barrio y que solía acercarme a las casas del vecindario en busca de rica merienda. Supongamos que en mi familia lo aceptaban todo, que les solía hacer “gracia” y que podía continuar haciéndolo tranquilamente cada día. Pero supongamos, que en esta fase de descubrimientos y búsqueda del auto placer comencé a tocarme el clítoris y la vagina, y que me gustó mucho. Que me di cuenta de que era una fuente de placer, y era mía, y que así descubrí la masturbación, con un cojín, con los brazos del sofá, en la cama, con la mano,… Supongamos

que todo fue estupendamente hasta que una persona adulta me dijo “¡Saca esa mano de ahí, es sucio!” Supongamos, que ese día aprendí que mi coño era algo sucio (¡incluso más que los chicles del suelo!) y que dejé de masturbarme.

Supongamos, que unos años más tarde, cuando estaba en el instituto, empecé a ligar con chicos. Que todas mis amigas y amigos tenían relaciones, y que me estaba quedando atrás, por lo que estaba deseando buscar mis primeros besos. Pero que tampoco podía mostrar mucho mis ganas de ligar, que no podía esperar mucho más que esos primeros besos, que no podía andar probando hoy con uno y mañana con otro (y ni pensar con otra!), … Que tenía que ser sexualmente activa (si no sería una monja) pero sin serlo demasiado, que no podía ser una puta. Ahí estaba mi línea. Supongamos que tenía miedo de atravesar esa línea, de atravesar la línea entre la mujer buena y la mujer mala. Esa raya estaba marcada en la sexualidad, en el conocimiento de mi cuerpo y en la gestión del placer. Por lo tanto, supongamos, que todas las personas de clase nos reímos cuando los y las jóvenes que vinieron a trabajar con nosotras la educación sexual, nos dijeron que debíamos masturbarnos, mirarnos el clítoris, tocarnos y querernos.

Supongamos, que unos años más tarde, en la universidad, comencé a militar en el movimiento feminista y que en mi pueblo, organizamos una exposición para sacar a la luz a las mujeres de la historia del mismo. Supongamos, que recopilamos fotos de las mujeres de una fábrica, y que aprendimos, que esas mujeres trabajaron en las fábricas durante el franquismo, mientras muchas de ellas criaban solas a sus hijas e hijos, y que además se sindicaron y lucharon a favor de sus derechos. Supongamos, que mientras estábamos mostrando estas fotos se me acercó una mujer mayor, y que me dijo que se decía en el pueblo que esas mujeres trabajadoras eran putas. Digamos, que ese día me di cuenta de que el estigma de ser puta, más allá de la sexualidad, se ha utilizado como estigma para mantener un sistema entero; que dentro de la familia heterosexual, ha servido para poder hacer un reparto de trabajos y de roles concreto, para mantener a las mujeres en casa, para que no sean económicamente activas, para mantenerlas bajo relaciones de poder.

Supongamos que todo esto me ha pasado a mí, o a ti. Dentro de un sistema heteronormativo, seguro que a ti también te ha podido pasar. A todas las mujeres nos han educado con el miedo a “lo otro”, a lo malo, insertadas en lo que no debemos ser. Han dirigido toda nuestra educación con el fin de que no seamos denominadas putas. Esto, además, ha supuesto la estigmatización de un colectivo concreto.

Mujeres de mala vida, controladas y de oficio de mal camino. ¿Cuántas veces hemos oído estas palabras al hablar sobre las trabajadoras sexuales? Para enfrentar esta victimización se han llevado a cabo diferentes estrategias. Por un lado, las políticas asistencialistas cada vez más punitivas que han adquirido algunas instituciones.

Éstas, más que en la solución, tienen su base en la victimización, en la estigmatización y en el castigo. Por otro lado, está el camino de la organización y la articulación de alianzas. En los últimos años, mediante la alianza de diversas organizaciones de trabajadoras sexuales y de gente que trabaja con ellas, se han creado sindicatos de trabajadoras sexuales,

organizaciones feministas, etc.
Así se ha conseguido que se deje de hablar por ellas, y hablen con voz propia. En Euskal Herria, la creación de la organización “Gu Gaitun” (Somos Nosotras) ha fomentado la coordinación entre diversos grupos que trabajan con trabajadoras sexuales, y ¡les deseamos un largo camino! Es grande el trabajo que pueden hacer todos estos colectivos, por un lado para luchar y reunir las situaciones y las reivindicaciones de las trabajadoras sexuales, pero, también para destruir la linea que todavía está en nuestras cabezas. Aún así, no podemos dejar toda la responsabilidad sobre estos movimientos. También es nuestra responsabilidad. Debemos hablar sobre la prostitución, sobre las putas, sobre los estigmas, …

Debemos visibilizarlos, denunciarlos y transformarlos. O apropiarnos de ellos. Como hizo el movimiento queer, nos apropiaremos de las palabras, y si ser puta significa ser libre sexualmente, independiente, dueña de nuestros cuerpos y mentes, trabajadora, contraria al sistema… yo también soy una puta.

Supongamos que llegará el día en que el relato del principio sólo sea una historia del pasado.

---

*https://eh.lahaine.org/euskaraz-puta-baten-istorioa*